



EBAZPENA (03/2008 Espedientea, ASFALTOS-ASFALTOAK)

Osoko Biler

Javier Berasategi Torices J., Presidentea
Joseba Andoni Bikandi Arana J., Presidenteordea
Juan Luis Crucelegui Gárate, Bokala
José Antonio Sangroniz Otaegi J., Idazkaria

Vitoria-Gasteiz-en, 2008ko abenduaren 30ean

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren (“LDEA” edo “Auzitegia”) Osoko Biltzarreak, arestian azaldutako kideez osaturik eta Ponente JOSEBA ANDONI BIKANDI Jauna izanik, ondoko Ebazpena hartu du CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A., ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A., EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L . eta ASFALTOS URRETXU, S.A direlakoan kontra jasotako 2007/17 Espedientean, zein eratu baita ustez Lehiaren Defentsarako Lege 16/1989, uztailaren 17ko 1., a) artikulua (1989/16 LDEA) hautsi izan dela; legehaustea, egotez, prezioa finkatzeko zenbait akordiotan legoke.

1. AURREKARIAK

1.1. INSTRUKZIOALDIA LDZ-AREN AURREAN

1. 2002ko urriaren 22an, Estatuko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak (LDZ) idatzi bat jaso zuen, igorria berau CONSTRUCCIONES GALDIANO, S.A., CONSTRUCCIONES MÚRIAS, S.A., CONSTRUCCIONES MOYUA, S.A., CONSTRUCCIONES ALTUNA Y URÍA, S.A., eta UTE A-1 enpresek; berorretan salatzen zuten CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A. (COPRISA) konpainiaren kontrola ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A. (CAMPEZO) eta EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L. (ORSA) enpresek elkarren artean hartu izana.
2. Salaketaren edukiaren iritzirako, 2002ko apirilaren 18an egin zen kontrolaz jabetzea -CAMPEZO Y ORSA-k COPRISA-ren kapital sozialaren bi herenak erosi izanaren bitartez egina- kontzentrazio operazioa zen, eta horrenbestez, enpresen arteko kontzentrazio operazioen kontrol



erregimenari atxikia; eta hori LDA-ri jakinarazgarri zen, Lehiaren Defentsarako Lege 1989/16, uztailaren 17ko 14 artikuluan aurreikusitako mugariak gainditzen zituenez gero.

3. 2003ko hastapenetan, Kontzentrazioen Azpizuzendaritza Orokorrak, harturik-eta oinarritzat salaturiko enpresei LDL-aren 32 artikulua arabera eskaturiko informazioak, txosten bat apailatu zuen eta berau bidali Lehiaren Kondukta Murriztaileen gaineko Azpizudendaritza Orokorrari; delako txostenean ondorioztatzen zen salaturiko operazioa ez zegokiola Lege 1989/16, uztailaren 17ko 14 artikulua eremu barruan sartzen den kontzentrazio ekonomikoko operazioari. Seinalatzen zuen, orobat, salaturiko operazioa enpresa lehiakideen arteko akordio baten emaitza zatekeela, eta hala izatera, aztertu egin behar zela LDL-aren 1 artikulua ikuspuntutik, zeren, haren ondorenez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, emulsio asfaltikoen merkatuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutu egin zitekeen.
4. Estatuko LDA-k, 2003ko abuztuaren 29an, informazio erretserbaturako aldi bat zabaldu zuen; beronen xede zen lehia murriztu izanaren zantzurik inon ote zen ala ez jakitea.
5. 2004ko apirilaren 11ko dataz, salaketa jarri zuten enpresek bere salaketaren desestimentua aurkeztu zuten Estatuaren LDL-ean eta hura onetsi egin zuten 2004ko apirilaren 27ko dataz. LDL-ak debekaturik dituen alegia-konduktengatik eratu ofiziozko espedienteak jarraitu egin zuen informazio erretserbatuko fase barruan.
6. 2004ko apirilaren 27an, LDL-ak berriro ere informazio eskaria egin zien enpresa salatzaileei; informazioa 2004ko maiatz barruan ekarri izan zuten.
7. 2004ko azaroaren 11n, enpresa salatzaileei berrien berri eskatu izan zitzaizen 2001etik 2004ra bitartean, urterik urte, izandako prezio eta merkatu kuotari buruzko informazioa; delako informazioa 2004ko abendu barruan ekarri izan zuten.
8. 2006ko martxoaren 13 eta 14an, urrenez urren, CAMPEZO, ORSA y COPRISA enpresen egoitza sozialak ikertu eta miatu izan ziren, eta aipatu hiru enpresoi berriz ere informazioa eskatu zitzaizen; eskari bertsua ASFALTOS URRETXU enpresari ere. Delako informazioa 2004ko martxoaren 24tik 2004ko apirilaren 5era bitartean ekarri izan zuten.



9. LDZ-ak, LDL-aren 36 artikulua 1 eta 4 apartatuak oinarri hartuz, 2006ko maiatzaren 17an erabaki zuen salaketa tramitaziobidean jartzea eta Lege 1989/16 uztailaren 17koak debekaturiko lehia murrizteagatik espediente sanzionatzailea zabaltzea CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A. (COPRISA), ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A. (CAMPEZO), EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L., (ORSA) y ASFALTOS URRETXU, S.A., (URRETXU) enpresen kontra, 2462/03 zenbakiz erroldatua. Tramitera onartzeko Probidentzia honetan eta Instruktoarearen Probidentzian –2006ko ekainaren 5ekoa- azaldu zen zeintzu diren konfidentzialtzat hartu dokumentuak eta hartakotzat hartu gabeak.
10. LDZ-ak COPRISA, CAMPEZO, ORSA y URRETXU enpresei produktu diferenteen hornitzaileei buruzko azken informazio eskaria egin izan zien 2006ko urriaren 26an; delako informazioa LDZ-ek jaso izan zuen 2006ko azaroaren 10etik eta 25era bitartean.
11. Egintzen Konkrezio Plegua (EKP) 2007ko martxoaren 2an onartu zuen LDZ-ak eta interesatu guztiei jakinarazi LDL-aren 37,1. artikuluan aurreikusita dagoenaren ondorioetarako.
12. Estatuko LDZ-ak Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari (LDEA) 2007ko martxoaren 16an bidali zion Egintzen Konkrezio Pleguaren (EKP) kopia, lortu zedin, beraz, Euskadiko Lehiaren Autoritateen aldetiko txosten prezeptiboa, lehiaren defentsarako gaitan, Estatuaren eta Erkidego Autonomoen arteko eskumenen Koordinaziorako Lege 1/2002 otsailaren 21eko 5,4. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako (Lege 1/2002).
13. LDEZ-ak 2007ko martxoaren 26an Estatuko LDZ-ari igorri zion, lehiaren defentsarako gaitan, Estatuaren eta Erkidego Autonomoen arteko eskumenen Koordinaziorako Lege 1/2002 otsailaren 21eko 5,4. artikuluan aurreikusitako txosten prezeptiboa, (Lege 1/2002).
14. 2007ko maiatzaren 9an, LDZ-ak jakinarazi zuen Ebazpen sanzionatzaileko Proposizioa; berau zen, 2001 eta 2002 urteetan, CAMPEZO, S.A. COPRISA, S.A., ORSA, S .L., eta URRETXU, S. A. enpresek elkar harturik zenbait asfalto motari jarri zioten prezio akordatuari buruzkoa, eta 2462/03 espedientea Lehiaren Defentsarako Auzitegiari igorri zioten.



1.2. EBAZPENALDIA LDA-N

15.2007ko maiatzaren 24an, LDA-k 631/07 zenbakidun espedientea tramitebidean jartzea onartzeko Probidentzia diktatu zuen, LDA-ren 39 artikuluan ezarritakoaren arabera ikusitakoa, eta interesatuei agerian jarri zien LDA-ren 40,1. artikuluan aurreikusitako epe barruan frogak ekarri ahal zituzaten eta bista egitea eskatu ahal izan zezaten.

16.2007ko azaroaren 13an, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (hemendik hara LDEA), Lehiaren Defentsarako gaietan, Estatuaren eta Erkidego Autonomoen arteko eskumenen Koordinaziorako Lege 1/2002 otsailaren 21ekoaren 2 artikuluan ezarriaren bertutez, Osoko bilkuran, ahobatez erabaki zuen LDZ-ari eskatzea igor ziezaiela 631/07 Aglomerado Asfáltico (Estatuaren LDZ-aren 2462/03 Espedientea) izenez tramitaturiko espedientea Euskadiko Autonomi Erkidegoko (hemendik hara EAE) Lehiaren Defentsarako Organoei, ikerturiko egintzek ez baitiote Erkidego honez haragoko ezein merkaturi reagiten, eta eskumen honen erreklamazioaren berri eman zekiela parte interesatuei.

17.2007ko azaroaren 28an LDA-k onartu egin zuen EAE-ko Lehiaren Defentsarako Organoen eskumena eta LDEA-ri igorri zizkion orduandaino praktikaturiko egintza guztiak.



1.3. LDEA-N INSTRUKZIO FASEA.

18. 2007ko abenduaren 4an, LDEA-k idatzia igorri zion Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari (hemendik hara LDEZ) eta, hari atxikirik, Lehiaren Defentsarako Organo Estatalek praktikaturiko egintzak, eta jakinarazi zion CAMPEZO, S.A., COPRISA, S.A., ORSA, S. L ., y URRETXU, S.A. enpresei espedientea irekitzeko interesa.
19. LDEZ-ak 2007ko abenduaren 12an erabaki zuen 17/2007 Zenbakidun espediente santzionatzailea eraikitzen hasia COPRISA. S. A, CAMPEZO S.A., ORSA S .L. eta URRETXU S.A. enpresei, horretarako oinarri hartuz Lehiaren Defentsarako Lege 15/2007 uztailaren 3ko 49,1 artikulua, beronetan debekaturik datozen lehiaren praktika murriztaileak egin izanagatik; aipatu espedientearen instruktore izendatu zen Guillermo Aranzabe Pablos Jauna, eta Idazkari Jaione Aberasturi Erezuma Andrea. Orobat, erabaki zuen espedientearen barrura sartzea Lehiaren Defentsarako Organo Estatalek praktikaturiko egintzak eta direlako organoak fondidentzial iritzi dien dokumentuetan konfidentzialitatea beteko dela.
20. Espedientea zabaldu edo eraikitzeko Erabakia LDEA-k enpresa interesatuei 2007ko abenduaren 18 eta 19ko datan jakinarazi zien. Orobat, espedientea eraikitzeko Erabakiaren berri eman zitzaion LDEA-ri 2007ko abenduaren 21eko datan.
21. 2008ko urtarrilaren 16an, bat etorriaz Lehiaren Defentsarako Lege 15/2007, uztailaren 3koaren 50,3. artikuluan ezarriarekin, LDEZ-ak Egintzen Konkrezio Plegu bat hartu zuen CAMPEZO, S.A., COPRISA, S.A., ORSA, S. L., eta URRETXU, S. A, enpresei zuzendua. Epearen eta formaren barruan, enpresa guztiek aurkeztu zituzten bere alegazioak EKP-ri.
22. 2008ko martxoaren 14an, LDEZ-ak bere Proposizio Txostena egin zuen, hartan LDEA-ri honakoa proposatzen ziolarik:

“LEHENA: Aitor zitzala badirela Lehiaren Defentsarako Lege 15/2007 uztailaren 3ko 1.1.a) artikulua debekaturik dituen lehiaren praktika murriztaileak, zeretik datozenak:

1. Ondoko asfalto motetarako prezioak finkatzeko akordioa, Gizpuzkoako merkatuan 2001ko prezioetan ageri dena:
 - G-20, G-12, S-20 eta S-12 karearria; akordio horren erantzulezat jotzen dira ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A., ASFALTOS URRETXU, S.A. eta EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L .



- D-12 eta D-8 karearria; akordio horren erantzuleztat jotzen dira ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A. y EXCAVACIONES eta TRANSPORTES ORSA, S. L .
- D-12 ofita eta TAPIVAT ofita; akordio horren erantzuleztat jotzen dira ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A. eta ASFALTOS URRETXU, S.A.
- TAPIVAT karearria; akordio horren erantzuleztat jotzen dira ASFALTOS URRETXU, S.A. eta CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A.
- Gorri beroa; akordio horren erantzuleztat jotzen dira CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A. eta ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A.

2. 2002ko urtean, Gipuzkoako merkatuan, ondoko asfalto motetatarako prezioak finkatzeko akordioa:

- S-20 eta S-12 karearria; akordio horren erantzuleztat jotzen dira ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A., ASFALTOS URRETXU, S.A., EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L . eta CONSTRUCCIONES PUBLICAS COPRISA, S.A.
- D-12 eta D-8 karearria; akordio horren erantzuleztat jotzen da EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S .L., CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A. eta ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A.
- G-20, G-12 karearria, D-12 ofita, D-20, S-20, S-12, D-8, S-8 ofita, tapivat karearria, tapivat ofita eta gorri beroa; akordio horren erantzuleztat jotzen da CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A. eta ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A.
- G-20 eta G-12 karearria; akordio horren erantzuleztat jotzen da ASFALTOS URRETXU, S.A. eta EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L .

BIGARRENA: Jo zitzala kondukta debakatu hauen erantzuleztat, beti ere arestiko paragrafoetan aipatu partidetzaren arabera, honakoak:

- ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A., CIF-a A01000751 zb., eta egoitza Amezketa Kalea, 10a, Donostia-San Sebastián (KP 20010).
- ASFALTOS URRETXU, S.A., CIF-a A20095311 zb., eta egoitza José Artetxe Kalea, 1a, Azpeitia (KP 20730).
- EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L ., CIF-a B31065212, eta egoitza LANBARREN POLIGONOA, 1 – 2., Oiartzun (KP 20180).



- CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A., CIF-a A26019307 zb., eta egoitza Iribar Plaza, 2 - ARAGI II eraikina, 2. - 2 bulegoa, Donostia-San Sebastián (KP 20018).

HIRUGARRENA: Har zezala kontuan, santzioen zenbatekoa erabakitzeko irizpidetzat, honako hau:

- a. Espediente barrura ekarritako enpresek orok dituztela bitariko klienteak eta bitzuoari prezio diferentek aplikatzen dizkietela: plantako prezioa, espediente honen gai, -honetakoetan, deskontuak egin ohi dira edo egin daitezke-, aldian behineko klienteei aplikatzen zaie, edonola ere, salmenten %10tik behera dira (COPRISA-k %1 baino gutxiago, ORSA-k %2,5, CAMPEZO-k %3,5); eta kliente handiei aplikaturiko prezioak, proiektu jakinetarako eginak, eta banaka ezarriak, hauek ezartzeko orduan ezin izan da frogatu plantako prezioek eraginik dutenik.
- b. Gure sistema ekonomikoan diharduen prezioen libertatez hara, bai eta prezioen kointzidentzia 2002 urteaz geroztik galdu egin izanaz aparte, Gipuzkoako prezioak oraino ere Araba eta Bizkaiko merkatuetan baino jasoagoak direla (%30eraino), lurralde horietan ere kostuak antzeko direnarren.

LAUGARRENA: Har zitzala Lehiaren Defentsarako Legearen 53 artikulua aipatzen dituen gainerako aitortpenak.”



1.4. EBAZPEN FASEA LDEA-N.

23. 2008ko maiatzaren 26an, LDEA-k Osoko Bilkuran erabaki zuen ASFALTOS-ASFALTOAK 03/2008 zb. espedientea tramitebidean jartzea, Ponentetzat J. ANDONI BIKANDI ARANA Jauna izendatzea eta espedientea CAMPEZO, S.A., ORSA, S. L., COPRISA, S.A., eta URRETXU, S.A. enpresei agerian ezartzea 15 eguneko epean haiek probak proposatu ahal izan ditzaten eta bista egitea eskatu ahal dezaten.
24. 2008ko uztailaren 4an, COPRISA enpresak, bere ordezkari Doña Rosa Tierno Andrearen bitartez, LDEZ-k igorritako espedienteari atxikitako txostena eskatu zuen, LDEA-ri 2008ko apirilaren 24an igorria. Galdeginiko txosten hau, beraz, fax eta e-mail bidez bidali zitzairen 2008ko uztailaren 10ean.
25. CAMPEZO, S. A. eta COPRISA, S. A. enpresek ahozko bista eskatu zuten 2008ko uztailaren 14 eta 21ean, urrenez urren.
26. LDEA-k, 2008ko irailaren 19an egin Osoko bilkuran, ahobatez onartu zuten COPRISA, S.A. eta CAMPEZO, S.A. enpresek eskaturiko asmoari baietza ematea, hau da, bista egitea urriaren 22an 10:00etan Lakua 2 Eraikineko 1 Aretoan, Donostia-San Sebastián Kaleko 1.ean, Vitoria-Gasteizen, eta interesaturiko enpresa guztiei jakinarazi zitzairen 2008ko irailaren 26an.
27. 2008ko urriaren 6an fax bidez eta urriaren 9an postaren bidez, LDEA-k jaso zuen 2008ko urriaren 22rako izendaturiko bistara asistitzeko eskaria URRETXU, S.A. enpresaren aldetik.
28. 2008ko urriaren 22an, a las 09.03etan, ORSA, S .L. enpresak bidalita, LDEA-k fax bidez izendaturiko bistara asistitzeko eskaria jaso zuen, asmoari Auzitegiak baietza eman zion.
29. 2008ko urriaren 22an egin izan zen ahozko bista LDEA-ren egoitzan, partaide zirela CAMPEZO, S.A., COPRISA, S. A., ORSA, S. L. eta URRETXU enpresak, alde batetik, eta besterik LDEZ-a, azken hau ordezkatua Guillermo Aranzabe Pablos Jaunak -espedientearen instruktore- eta beronen Idazkari Jaione Aberasturi Erezuma Andreak.
30. 2008ko abenduaren 15ean, LDEA-k COPRISA-ren aldetik autoinkulpazio bat eta konduktazko konpromiso batzuk zeuzkan idatzi bat jaso zuen, horixe zen LDEA-k santzio ekonomikoa murriztu zezaneko baldintza, horren gabe isuna bestelakoa zatekeen.



31. 2008ko abenduaren 15ean, LDEA-k CAMPEZO-ren aldetik autoinkulpazio bat eta konduktazko konpromiso batzuk zeuzkan idatzi bat jaso zuen, horixe zen LDEA-k sartzio ekonomikoa murriztu zezaneko baldintza, horren gabe isuna bestelakoa zatekeen.
32. 2008ko abenduaren 15ean, LDEA-k ORSA-ren aldetik autoinkulpazio bat eta konduktazko konpromiso batzuk zeuzkan idatzi bat jaso zuen, horixe zen LDEA-k sartzio ekonomikoa murriztu zezaneko baldintza, horren gabe isuna bestelakoa zatekeen.
33. 2008ko abenduaren 30ean, LDEA-k Osoko bilkuran Ebazpena hau hartu zuen, partaide interesatu direlarik ondoko enpresak:
- ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A., CIF-a A01000751 zb., eta egoítza Amezketa Kalea, 10a, Donostia-San Sebastián (KP 20010).
 - ASFALTOS URRETXU, S.A., CIF-a A20095311 zb., eta egoitza José Artetxe Kalea, 1a, Azpeitia (KP 20730).
 - EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L ., CIF-a B31065212, eta egoitza LANBARREN POLIGONOA, 1 – 2., Oiartzun (KP 20180).
 - CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A., CIF-a A26019307 zb., eta egoitza Iribar Plaza, 2 - ARAGI II eraikina, 2. - 2 bulegoa, Donostia-San Sebastián (KP 20018).



2. FROGATU EGINTZAK

2.1. Enpresak

Interesaturiko enpresak ondoren datozenak dira:

1. ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A. (CAMPEZO)

34. CAMPEZO enpresak Vitoria-Gasteiz-en du bere egoitza eta eraikile-talde baten buru da; jarduten du –obra zibilaren barruan- asfaltoaren sektorean. Delako jardun hori egin ohi du EAE, Nafarroa eta Gaztela eta Leoi eskualdeetan. Asfaltogintzarako (aglomeratua) instalazioak ditu Andoain (Guipuzkoa), Trespuentes (Araba), Elorrio (Bizkaia) eta Gallartan (Bizkaia).

2. EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S.L. (ORSA)

35. ORSA enpresak Oiartzunen (Gipuzkoa) du bere egoitza, eta bere asfaltogintzarako planta Lesakan (Nafarroa) dago. ORSA nahaste asfaltikoa hornitzen 2001ean hasi zen, orduandaino bere lanetan aritzen zen.

3. CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A. (COPRISA)

36. COPRISA enpresak Donostian du bere egoitza, emultsio asfaltikoen ekoizpen eta emultsioginen aritzen da. Konglomeratu asfaltikorako bere fabrika Altsasun (Nafarroa) du. 2002ko apirilaren 18an, COPRISA-ren kapital soziala parte berdinetan banandu zen CAMPEZO (33,33%), ORSA (33,33%) eta enpresa eraikitzaileen UTE-A1-en (33,33%) artean. 2002ko apirilaren 29an, ORSA eta CAMPEZO-k bakoitzak COPRISA-ren Administrazio Kontseiluaren erdibana izendatu zuten, eta 2004ko martxotik COPRISA-ren jabe dira, bakoitzak %50. Enpresa honek 2005an bere salmenten %92 Gipuzkoan egin izan ditu, %7 Nafarroan eta %1 Araban.

4. ASFALTOS URRETXU, S. A. (URRETXU)

37. Azpeitian (Gipuzkoa) kokatu enpresa, nahaste asfaltikoetan ari da. Bere ekoizpena, batez ere, obra txikietarako da; 10.000 TM-az azpitikoak.

2.2. Merkatua



38. Erreferentziako espedientean inplikaturiko produktua “aglomeratu asfaltikoa” da. Produktu hau ateratzen da funtsezko bi lehengai nahastetik, betuna eta aridoak:

- **Betuna:** Betuna petroliotik eratorria da eta, beraz, produktu horren prezioaren aldaketei dagokie. Osagai hori, asfaltoaren pisuan, %6 baino ez da.
- **Aridoak:** Zernolako asfaltoa ekoiztu nahi den, halako harri, kaebarri eta ofitak baliatzen dira. Horretatik, bitariko asfaltoa dator: ofitikoa eta harrearrizkoa. Osagai hau produktuaren %94 da.

39. Aglomeratu asfaltikoen artean, ofitiko eta harrearrizkoen artean, beraz, zenbait barietate bereiz daitezke, espedientean inplikaturiko enpresek komertzializatzen dituztenak:

- **Nahasteka semidentsoak:** eduki ligagarria edo likisgarria erabiltzen dute %5 inguru: S-12 (tamainurik handiena 20mm), S-20 (tamainu handiena 25mm).
- **Nahasteka dentsoak:** D-12, D-20 eta D-8, eduki ligagarria semidentsoek baino zerbaixka handiagoa darabilte eta arido xehe gehiagoa.
- **Nahasteka lodiak:** G-20 eta G-12, aurrekoek baino arido xehe gutxiago, batez ere oinarritzko geruza erabili ohi da.
- **Nahasteka bereziak:** tapivat mota eta gorri beroa.

40. COPRISA-ren asfaltogintzarako instalazioak Altsasun (Nafarroa) daude, ORSA-rena Lesakan (Nafarroa) eta CAMPEZO-ren elaborazio plantak Andoainen (Gipuzkoa) eta Trespentesen (Gasteizetik 13 kilometrora). Baldin marka badaitez 100 bat kilometroko zenbait zirkulu instalazio hauetako bakoitza zentrotzat harturik, ohartuko gara batez ere Gipuzkoan kointziditzen dutela eta askoz gutxiagotan Araba eta Nafarroan. Enpresek, beraz, bere ekinaren parterik handiena Gipuzkoan biltzen dute. CAMPEZO Errenteria, Deba, Eibar eta Beasain hartzen dituen trapezioaren barruan dago. COPRISA-k bere salmentak Bergara, Arrasate eta Ordizia aldera daramatza. ORSA-k, bere aldetik denaz, jakinarazi du bere salmenta handienak Gipuzkoa barruan egiten dituela.

41. Horietako bakoitzak Gipuzkoa barruan daukan garrantziari zaionez, enpresa guztiek aitortu dute bere merkatu kuota egonkor izan dela 2001etik gerora, ORSA merkatura sartu zen arte, beraz. Geroztik, ez da beste lehiakiderik sartu.

42. 2003ko urtean CAMPEZO-k (bere filial eta guzti), Gipuzkoako eskualdean, asfaltoaren sektorean bazuen %39ko kuota; egun ere, berak dioskunez, daukan antzekoa. Sasoi berean, ORSA-k asfaltoaren sektorean, Gipuzkoan,



%20 inguruko kuota zeukan; egun ere bere horretan da. COPRISA-ren kuota, asfaltoaren sektorean eta Gipuzkoan, 2003tik eta egundaino %20-25 bitartean izan da. URRETXU-ren kuota, berriz, beronen lehiakideen esanetan, nahasteka asfaltikoen merkatuan eta Gipuzkoan %15-20 ingurukoa dateke.

43. Enpresa hauen jardun eta egitekoak bi kliente motari doazkio:

- Aldian behineko klienteak, fabrikara kantitate txikiak erostera doazenak.
- Kliente handiak, lizitazio publiko edo pribatuak hartzen dituztenak edo subkontrata bidez dihardutenak.

44. Aldian behineko klienteek produktuen beharkizun jakin batzuk izaten dituzte, han hemenka eta aldian aldian sortuak eta kantitate txikitan. Erosten duten enpresara jotzen dute. Kliente mota hau, goitik jota, enpresa hauen salmenten %10 da, eta are %5 baino gutxiago COPRISA eta ORSA enpresetan, jakinarazi dutenez. Kliente hauei “plantako prezioak” aplikatzen zaizkie, gehienetan deskonturik gabe.

45. Kliente handiak salmenten %90 gora dira eta lan baten adjudikatario diren eraikitzaileen subkontrata izan ohi dira edota Administrazioaren beraren subkontrata. Kliente handiei aplikaturiko prezioak bakarka ezarri ohi dira, parametro diferente zenbait gogoan izanik (produktuaren kostu, garraio, burutaratzeko epe, errendimentu estudioen kostu).

46. Enpresen plantako prezioei buruz Espedienteak dauzkan xehetasunak (ERANSKINA 1) argiro utzi dute produktuen prezioek badutela halako batasun bat Gipuzkoan 2001 eta 2002ko urteetan, eta eta ondoko urteetan batasun hori hautsi egin izan da.

2.3. 2001 urtea

47. 2001ko urtean, hau da, COPRISA-ren kontrola hartu aurrekoan, zenbait produkturen prezioak (G-20, G-12, S-20 eta S-12, D-12 eta D-8 karearria (36,06€)) bertsuak ziren CAMPEZO eta ORSA-n, eta prezioetan bat zetozen URRETXU-rekin lehenengo lau produktuetan. Bestalde, CAMPEZO eta URRETXU-k prezio bera zuten asfalto tapavit ofitan (45,08€).

48. COPRISA enpresak, besteen aldean, prezio diferenteak zituen bere produktu guztietan, salbu eta asfalto gorri beroan, honetan CAMPEZO-rekin bat zetorren (156,26€) eta tapavit karearrian, zeinetan URRETXU-ren prezio bera (40,87€) zuen.

2.4. 2002 urtea



49. 2002ko urtean, COPRISA erosi zenarekin bat (2002ko apirila), CAMPEZO-ren eta COPRISA-ren prezioak berdinak ziren produktu guztietarako; ORSA-rekin kointziditzen zen soilik S-20, S-12 eta D-8, D-12 karearrian (36,06€); eta URRETXU-rekin soilik S-20, S-12 karearria eta D-12 Ofita produktuetan. Horrez gain, G-20 eta S-20 karearriako prezioak berdinak dira ORSA eta URRETXU-n.

2.5. 2003- 2005 urteak

50. CAMPEZO eta ORSA-k COPRISA erosi zutenaz geroztik (hau da, 2003, 2004 y 2005 urteak), barietate guztiei ezarritako prezioak ez datoz bat enpresa horietan.



ESKUBIDEZKO FUNDAMENTUAK

51. Lehiaren Defentsarako Lege 15/2007 uztailaren 3koaren 1.1 artikulua ezartzen du: “debekatu egiten da akordio, erabaki edo gomendio kolektibo, edo praktika kontzertatu edo konszienteki paralelo oro, xedetzat duena, edo eragin dezakeena lehia eragozteko, murrizteko edo faltsutze, merkatu nazional osoan edo parte batean, bereziki ere honelakoak: a) zuzenki edo zeharka, prezioak edo beste kondizio komertzial edo zerbitzu batzuk finkatzea.”
52. CAMPEZO, COPRISA, ORSA-k LDEA-ri autoinkulpazioazko eta konduktazko konpromisoak hartzeko idatzi bana bidali diote COPRISA-ren kudeaketa independenteari buruz, honelatsu dioena:

CAMPEZO

53. “Nik ordezkatzeko dudako enpresari erreferentziazko espediente hau alait lasterren amaitzea interesatzen zaiola, horrela alegia luzapenik eta errekurtsurik ez da gertatuko; hargatik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari proposatzen diot haren amaiera konbentzio bidez ondoko terminuetan:

1na. Asfaltos Naturales de Campezo, S.A.-k onartu egiten du asfalto mota batzuetan prezioak kontzertatu egin dituela Euskal Erkidego Autonomoan dituen planta asfaltikoetan egindako salmenta txikiatarako, 2001 eta 2002 urteetan; delako kontzertatze hori egin izan da Excavaciones y Transportes Orsa, S.L.-rekin eta Construcciones Públicas Coprisa, S.A.-rekin 2008ko martxoaren 14ko Ebazpen Proposizioan ezarritako terminuetan.

2na. Aurrekoaren ondorioz, enpresa honek onartu egiten du eurotako isuna ordaintzea.

3º. Asfaltos Naturales de Campezo, S.A.-k, Construcciones Públicas Coprisa, S.A.-ren kapital sozialaren akzio errepresentatiboaren %50en jabe delarik, bere burua behartu egiten du azken honen administrazioari independentzia osoa ematera lehia libreari dagokionez, ez dio ezein ohar egingo ez prezioez ez aurkeztuko den lehiaketa publikoek, eta funtsean, permititu egingo dio merkatuan libreki eta independenteki lehia dadin.

4na. Asfaltos Naturales de Campezo, S.A. exoneratua dago, beraz, presenteko prozeduratik etor lekiokkeen beste erantzukizun oratarik.

Azaldutakoaren bertutez



OTOIZTEN DIOT Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari idatzi hau aurkeztutzat har dezala eta orobat espedientearen amaiera konbentzionala onets gorago aipaturiko terminuetan, eta dikta dezala bere ebazpena harekin bateratsu etorriaz.”

COPRISA

54. “Eskatzen dut erabaki dezala nire enpresaren kontra zabalduko prozedura santzionalatzailearen amaiera konbentzional edo negoziatua, erabaki ere ondoko terminuetan:

1na. CONSTRUCCIONES PUBLICAS COPRISA, S.A.-k onartzen du, Gipuzkoako merkatuan, aglomeratuaren plantako prezioak ezartzeko akordio tazito baten ardura duela eta, beraz, erantzule dela; akordio hori izan da ondoren datozen enpresekin eta ondoko urte eta produktuetan:

- 2001 urtea: GORRI BEROA, NATURALES DE CAMPEZO, S.A.-rekin.
- 2002 aurtea:
 - S-20, S-12 karearria, D-12 eta D-8 karearria, G-20, G-12 karearria, D-12 Ofita, D-20, S-20. S-12, D-8, S-8 ofita, TAPIVAT CALIZA, TAPIVAT OFITA, eta GORRI BEROA, ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A.-rekin
 - S-20, S-12, D-12 eta D-8 karearria, EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L.-rekin.

2na. Gogoan izanik legeuasteari dagozkion salmentak CONSTRUCCIONES PUBLICAS COPRISA, S.A.-k Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan dituen salmentetarik %1 baino gutxiago direla, 9.000 euroko isuna ordaintzea proposatzen da.

3na. Horretaz gain, CONSTRUCCIONES PUBLICAS COPRISA, S.A.-k bere gain hartzen du honako konpromisioa: merkatuan maila guztietan jarduteko, giza- eta ekoizpen baliapideak mantenduko dituela; konpromisoaren barruan dira, orobat, bere sozioen aldean (Asfaltos Naturales de Campezo, S.A. y Excavaciones y Transportes Orsa, S.L.) era desberdinean egingo dituela kudeaketa eta ekoizpena; funtsean, hemendik hara neurriak (bere zuzendari eta enpleguatuak formatu eta informatu) hartuko dituela lehia librearen kontrako egintzarik gerta ez dadin.

4na. Horren guztiaren ondorioz, bai eta portaerak merkatuan izan duen eragin urriaren ondorioz, CONSTRUCCIONES PUBLICAS COPRISA, S.A., exoneraturik geratuko da karguak onartzetik etor dakiokkeen beste erantzunkizun orotarik.



Azaldutakoagatik beraz,

AUZITEGIARI OTOIZTEN DIOT, idatzi hau har dezala epe eta forma barruan aurketuzat, eta azaldutakoaren bertutez, ebazpena agertaraz dezala idatzian proposaturiko terminuak onartuz.”

ORSA

55. “Nik ordezkutzen dudan enpresari espediente hau al bait lasterren amaitzea interesatzen zaiola eta hortakotz:

1na. Onartu egiten du asfalto mota batzuetan, bere planta asfaltikoan egindako salmenta txikietan, aldi behineko klienteentzat 2001 eta 2002an prezioak kontzertatu egin dituela Asfaltos Naturales de Campezo, S.A. eta Construcciones Públicas Coprisa, S.A. enpresek, kontzertatu ere, 2008ko martxoaren 14an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren Proposizioaren lehenengo apartatuan datozen terminu beretan.

2na. Egun, Asfaltos Naturales de Campezo, S.A.rekin batera, Construcciones Públicas Coprisa, S.A.-ren akzionista delarik, obligatu egiten da azken honek merkatuan lehia librea eta independietea izan dezan, eta hortakotz, ez dio prezioen ez lehiaketa publikoen gaineko jarraibiderik emango.

3na. Jaramon eginez portaerak merkatuan izan duen eragin urriari eta lehenago adierazi diren konpromisoei, Auzitegiari proposatzen dio 12.500 euroko isuna ordainduko duela. Eta horretara, exoneraturik geratuko da presenteko espediente santzionatzaitetik etor dakioken beste erantzunkizun orotarik.

Azaldutakoagatik beraz

OTOIZTEN DIOT Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari idatzi hau har dezala aurkeztuzat, onar dezala, eta bororren bertutez, egoki diren tramiteen buruan, ebazpena agertaraz dezala idatzian proposaturiko terminuetan.”

56. Espediente honetan Frogaturiko Egintzak ikusita eta CAMPEZO, COPRISA eta ORSA enpresen autoinkupalzio aitorenak entzunik, Auzitegi honek ondorioztatzen du CAMPEZO, COPRISA eta ORSA enpresek 2001 eta 2002an produktu asfaltiko batzuen plantako prezioak kontzertatu zituztela, beti ere, hiru enpresen fakturazio osoko %10etik beherago salmentak izaki. Xehetasunetara jota:

57. 2001 urtea

- CAMPEZO, COPRISA eta ORSA enpresek G-20, G-12, S-20 eta S-12 harreari deritzen produktueen plantako prezioak kontzertatu



zituzten.

- CAMPEZO eta ORSA enpresek D-12 y D-8 harearri deritzen produktuen plantako prezioak kontzertatu zituzten.
- CAMPEZO eta COPRISA enpresek gorri bero deritzan produktuaren plantako prezioak kontzertatu zituzten.

58. 2002 urtea

- CAMPEZO, COPRISA eta ORSA enpresek S-20, S-12 karearri; D-12 eta D-8 karearri deritzen produktueen plantako prezioak kontzertatu zituzten.
- CAMPEZO eta COPRISA enpresek G-20, G-12 karearri, D-12 ofita, D-20, S-20, S-12, D-8, S-8 ofita, tapivat karearri, tapivat ofita eta gorri bero deritzen produktuen plantako prezioak kontzertatu zituzten.

59. CAMPEZO, COPRISA, ORSA enpresen arteko prezio-akordioak, 2001 eta 2002 urteetan, Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1.a) artikulua hautsi egiten dute, eta hargatik santzioa merezi dute. Santzio ekonomikoaren zenbatekoari zaionez, Auzitegi honek irizten dio kontuan hartzeko faktore direla: legeauste hau egin zenetik igarotako denbora, enpresa legeausleen plantetan kantitate marginala saltzen zela eta enpresen beren autoinkulpazioa eta beren konpromisoak COPRISA-ren kudeaketa independienteari buruz. Horrenbestez, ondoko santzioak aplikatzea bidezko da:

- ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A., larogeita lau mila bostehun (94.500,00) euro.
- CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A., bederatzi mila (9.000,00) euro.
- EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L., hamabi mila eta bostehun (12.500,00) euro.

[Orotara: 116.000 euro]

60. Beste alde batetik, Auzitegi honek irizten dio ez dela frogatu izan ASFALTOS URRETXU, S.A. enpresak parte hartu duenik ezekin akordio antikonpetitibotan CAMPEZO, COPRISA eta ORSA enpresekin 2001 eta 2002 urteetan; hargatik, artxibatu egin behar da enpresa honi buruzko Espediente santzionatzailea.



Aipaturiko agindu eta prezeptu legalak ikusirik, bai eta aplikazio orokorreko beste batzuk, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak

EBATZI DU

LEHENIK. – Jakinaraztea ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A., CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A., eta EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L. elkar harturik Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1.a) artikulua kontrako kondukta izan dutela, hau da, zenbait produktu asfaltikoren plantako prezioak kontzertatu eta adostu egin dituztela 2001 eta 2002an. 2001ko urtean: (a) CAMPEZO, COPRISA eta ORSA-k plantako prezioak kontzertatu zituzten G-20, G-12, S-20 eta S-12 karearriko produktuetarako; (b) CAMPEZO eta ORSA-k D-12 eta D-8 karearriko produktuen plantako prezioa kontzertatu zuten; eta (c) CAMPEZO eta COPRISA-k gorri beroa produktuaren plantako prezioa kontzertatu zuten. 2002ko urtean: (a) CAMPEZO, COPRISA eta ORSA-k S-20, S-12 karearriko produktuaren plantako prezioa kontzertatu zuten; orobat, D-12 eta D-8 karearriarena; (b) CAMPEZO eta COPRISA-k G-20, G-12 karearria, D-12 ofita, D-20, S-20, S-12, D-8, S-8 ofita, tapivat karearria, tapivat ofita eta gorri beroa produktuen plantako prezioak kontzertatu zituzten.

BIGARRENIK.- ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A., enpresari larogeita lau mila bostehun (94.500,00) eurotako isun ekonomikoa ezartzea.

HIRUGARRENIK.- CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A., enpresari bederatzita mila (9.000,00) eurotako isun ekonomikoa ezartzea.

LAUGARRENIK.- EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S.L. enpresari hamabi mila eta bostehun (12.500,00) eurotako isun ekonomikoa ezartzea.

Betebehar hau bete ez balezate, atzerapen egun bakoitzeko, sei ehun eurotako isun koertzitiboa jarriko zaie.

BOSGARRENIK.- Jakinaraztea ASFALTOS URRETXU, S.A., enpresaren partaidetza ez dela frogatu 2001 eta 2002 urteetan produktu asfaltikoen plantako prezioa finkatzean.

SEIGARRENIK.- Eskatzea Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari Ebazpen honen kunplimentua zaindu eta begira dezala, bereziki ere, ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A., CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A. eta EXCAVACIONES y TRANSPORTES ORSA, S. L. enpresek hartutako konpromisoak CONSTRUCCIONES PÚBLICAS COPRISA, S.A enpresaren kudeaketa independenteari buruz.



ERANSKINA

TAULA I

PRODUKTUEN PREZIOEN BILAKAERA									
Prezioak, €/Tm	Prezioak Gipuzkoa				Bataz-besteko prezioak CAMPEZO				
					ESKUALDEKA				
Urtea 2001									
	CAMPEZO	COPRISA	ORSA	URRETXU	Bizkaia	Araba	Burgos	León	Palencia
G-20, G-12 KAREARRI	36,06	32,29	36,06	36,06	22,72	18,19		16,83	19,98
HOTZ XEHEA	33,66		38,46			35,21		28,11	
S-20, S-12 KAREARRIA	36,06	32,39	36,06	36,06	24,61	21,12	22,66	18,93	21,17
D-12, D-8 KAREARRIA	36,06	40,87	36,06	39,07	24,83	22,28		19,39	23,40
D-12 OFITA	40,87	43,57	41,47	40,87	31,12	25,14	20,92		23,16*
D-20, S-20, S-12, D-8, S-8 OFITA	40,87	43,57	41,47	42,07	30,98	27,90	20,00	34,86*	
TAPIVAT KAREARRIA	40,27	40,87	36,06	40,87	28,84	29,52			
TAPIVAT OFITA	45,08	52,29	41,47	45,08					
GORRI BEROA	156,26	156,26	162,27	144,24	93,92	82,20			
Urtea 2002									
	CAMPEZO	COPRISA	ORSA	URRETXU	Bizkaia	Araba	Burgos	León	Palencia
G-20, G-12 KAREARRI	34,86	34,86	36,06	36,06	23,04	18,19	21,15	16,10	18,76
HOTZ XEHEA	34,86		38,46			36,45		29,92	
S-20, S-12 KAREARRIA	36,06	36,06	36,06	36,06	24,88	20,30	20,90	18,91	19,60
D-12, D-8 KAREARRIA	36,06	36,06	36,06	39,07	25,10			19,30	22,92
D-12 OFITA	40,87	40,87	41,47	40,87	31,15	25,52	22,13		27,32*
D-20, S-20, S-12, D-8, S-8 OFITA	40,87	40,87	41,47	42,07	31,31	24,66	23,60		
TAPIVAT KAREARRIA	40,27	40,27	36,06	40,87	29,01	28,43			
TAPIVAT OFITA	45,08	45,08	41,47	45,08					
GORRI BEROA	142,00	142,00	162,27	144,24	94,77	81,27			